



# Plazaberri 2

ISSN: 1889-8084

www.euskaltzaindia.net

L.G.: BI-2701-09 2009KO AZAROA

## Euskaltzaindiaren aldizkaria

### “Heriotzaren kolpe latza”

Andres Urrutia

#### Euskaltzainburua

[...] Hura zen Villasantek duela 30-40 urte Euskaltzaindira ekarri zuen taldearen kidea: Zearreta, Lizundia, Badiola, Artza... ez dira alboan uzteko modukoak Akademiaren historian. Horiek ahalbidetu eta ziurtatu dituzte urte luze eta latzetan Akademiaren zeregina eta presentzia.

Badira Juanjo Zearretaren biografian xehetasun adierazgarriak, euskal kulturari emanak, besteak beste, Euskaltzaindiaren kudeatzaile, lehen ere kontu-eramaile izan zela, bertsozale, alfabetatze kanpainen sortzaile, euskara irakasle, sustatzaile nekaezina... gutxi izango dira Euskal Herrian zehar haren ekimenaren berri izan ez dutenak.

Lanerako beti prest eta gogotsu, Erakundearekiko leiala, ordu asko eman ditu Juanjok Euskaltzaindiaren zereginetan. Beti erne, beti adi, azken ukitu arte, Euskaltzaindiak antolatutako ekitaldietan dena erraz eta gozo joan zedin.

Bazen, alabaina, beste Juanjo Zearreta, niretzat barnerakoagoa, adixkideagoa. Hark kontaktzen zituen bere lehen garaiak Akademian, Eusebio Erkiagari bisitak egiten zizkionean, bien artean Euskaltzaindiaren kontuak eramateko. Edota futbolerako zaletasuna, urte luzeetan izan baitzen Juanjo Zearreta San Mames futbol zelaiaren esataria, euskaraz eta gaztelaniaz, jokalarien eta jokoaren gertaerak aldarrikatzen zituen.

[...] Euskaltzaindiaren historian Juanjo Zearretaren izena letra larrietan idatziko da. 90 urte bete ditu Akademiak berrikitan. Joan Mari Torrealdaik eta Imanol Muruak egindako liburu egokian dugu Juanjo Zearreta, euskaltzain eta langileekin batera, irudi dotore batean. Hura zen Akademiaren jagolea, hura zen gure erakundearen orogilea. [...]

### “Zearreta eskuineko eskuari ohore”

Jose Luis Lizundia

#### Diruzaina

[...] Bilbon ezagutu nuen Euskaltzaindiaren *Erribera* kaleko egoitza zaharrean. Idazkari soil batekin, languntzaile baten premia handia nuen, bi zeregin betetzeko, bata, erakundearen kontularitza eramateko eta, bestea, Euskaltzaindiaren babespean antolatzen ziren alfabetatze kanpainak eta euskalduntze ikastaro hasiberriak koordinatzeko, neu bainintzen, 1968-69tik, Rikardo Arregiren eskuetik, Bizkaiko arduradun eta ezin nuen denera iritsi.

Banekien nola 1968-69an, Deustuko San Felizisimo pasiotarren ikastetxean euskarazko eskolak, alfabetatze eta euskalduntzekoak ematen hasia zen taldetxo bat, oker ez banago, Xabier Mendiguren, Jose Ramon Tapia eta Juanjo Zearretak osatua. Juanjorengana jo nuen eta Juanjo hartu nuen aipatu lan biotarako. Hasiera-hasieratik izan zen nire eskuineko eskua. Langile aparta, leiala eta erakundeari zeharo atxikia.

Alde batetik, orduko diru kontu urriak eramaten laguntzen zidan. Alfabetatze-euskalduntze zereginak lau alorretan zatikatu ziren: 1. Herrietako alfabetatzearen koordinakundea; 2. Euskalduntze lana; 3. Irakasleen presetaketa eta 4. Testugintza. Azken honetan buruturiko argitalpenak dira hiru *Euskalduntzen* liburukiak eta *Alfabetatzen* (1975). Langintza horretan hamahiru lagun aritu ziren eta horietako aurrenetarikoa Zearreta izan zen.

1979ko I. Barne-Jardunaldien ondorioz, *Jagon* Saileko hiru batzordetan agertzen bada ere, Alfabetatze-Euskalduntzeko Gidaritza Teknikoan, Oinarrizko Euskara eta Irakaslegokoan laugarren baten, hots, Bertsolaritzakoan ere antolaketa laguntzaile ere aritu zen, zeren eta garai hartan Euskaltzaindiak antolatzen baitzituen txapelketak. 1981ean eta 1983 "urtebiko" batzorde berberetan jarraitzen du. Gauza jakina, Euskaltzaindiak ematen zituela Irakaslego batzordearen bidez, Eusko Jaurularitzaren esku laga arte, ba, pasa ondoren ere Azterketa batzorde idazkari jarraitu zuen Zearretak, baita, Nafarroan ere geroago.

Erakundean Ekonomi eragile kargua hartu zuen 70eko hamarkadaren erdialdera eta lan horretan eman bere lanik oparoena, ni 2003an, idazkariordekudeatzaile bezala jubilatu arte.

[...] Aitor dezadan, hogeita hamasei urtetan, eskuineko eskua izan dudala, azken urteotan kudeatzaile arduran. [...]

*WWW.EUSKALTZAINDIA.NET*

	urria
1) Bititak, guztira	68.619
2) web-orrialde bistaratzeak:	
Zuzeneko sarbideak webguneko atarira	23.392
Hiztegi Batua	183.484
Euskaltzaindiaren Arauak	15.925
OEH ( <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> )	22.957
Jagonet zerbitzua	31.256
EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia)	261.899
Argitalpenen katalogoa	6.304
Beste guztiak	74.401
Web-orrialde bistaratzeak, guztira	619.618

*Web-orrialde bistaratzeen grafikoa:*



*LAUROGEITA HAMAR URTE: AURKEZPENAK*

**Euskaltzaindiaren 90. urteurrenaren amaierako ekitaldia, Donostian**

Urriaren 9an, Gipuzkoako Foru Aldundian, Euskaltzaindiak amaiera eman zien bere 90. urteurrena ospatzeko urte osoan zehar egin dituen ekitaldiei. Euskaltzaindiarekin batera, orain dela 90 urte Akademia sustatu eta sortu zuten lau Aldundietako ordezkariak izan ziren -Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroakoak-, baita gaur egun Euskaltzaindia aitortzen eta laguntzen duten erakundeak ere: Eusko Jaur-larritza, Hezkuntza Ministerioa eta Euskararen Erakunde Publikoa.

Urte baten buruan bost ospakizun ekitaldi egin ditu Euskaltzaindiak Euskal Herriko hainbat lurraldetan: Nafarroan, Araban, Lapurdin eta Bizkaian. Azken hau Gipuzkoan egin zuen, bertako Foru Aldundian, eta Andres Urrutia euskaltzainburuak ondo azaldu zuen honen zergatia: "Bada, hementxe bertan,



jauregi honetan, egin zuelako Euskaltzaindiak bere lehen lan-bilera, gure artean irudi ahantzezin hori dagoela. Bilera horretan ordezkaturata egon ziren herrialde euskaldun guztietako eta euskalki guztietako ordezkariak. Gipuzkoako Aldundiak egin zion harrera, beraz, Euskaltzaindiaren lehenengo biltzar horri, eta Aldundi horrek eragin zuen, Araba, Bizkaia, eta Nafarroako Aldundiekin batera, Euskaltzaindiaren sorrera. Hona hemen, beraz, lau Aldundi horientzako aitortza, gogo onez egiten duguna".

Hain zuzen ere, orain dela 90 urte gertatu bezala -orduan, Julian Elortza Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak bere aulkia utzi zion Resurreccion Maria Azkue euskaltzainburuari- urriaren 9an ere Markel Olano Ahaldu Nagusiak bere eserlekua utzi zion Andres Urrutiari, ekitaldiaren buru izan zedin. Olanorekin batera, erakundeotako ordezkari hauek mintzatu ziren: Xabier Agirre, Arabako ahaldu nagusia; Jose Luis Bilbao, Bizkaiko ahaldu nagusia; Juan Ramon Corpas, Nafarroako Kultura sailburua; Blanca Urgell, Eusko Jaur-laritzako Kultura sailburua; Max Brisson, Euskararen Erakunde Publikoaren burua; Mercedes Chacón, Hezkuntza Ministerioraren Zuzendari Orokorra; eta Ainhoa Beola, Donostiako Udalaren Euskara zinegotzia. Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutiak berak eta Xabier Kintana idazkariak hartu zuten hitza.



PLAZABERRI • Euskaltzaindiaren aldizkaria

*Erlea - 1* (Aldizkari literarioa)  
Zuzendaria: Bernardo Atxaga  
Pamiela - Euskaltzaindia · 2009  
136 orr. ISSN: 1889-7576  
12,00 €


*Kalendrea (1571)*  
Joanes Leizarraga  
Prestatzailea: Xabier Kintana  
120 orr.  
ISBN: 978-84-95438-54-6  
10,00 €

**EUSKALTZAINDIA**  
*ekin eta jarrai*

Joan Mari Torrealdai -  
Imanol Murua Uria  
260 orr.  
ISBN: 978-84-95438-98-0  
24,00 €

### **Euskaltzaindia: Ekin eta Jarrai liburua**

Akademiaren 90. urteurrenaren harira, *Euskaltzaindia, Ekin eta Jarrai* liburua argitaratu du Akademiak. Liburu hau Joan Mari Torrealdai euskaltzain osoak eta Imanol Murua Uria kazetariak idatzi dute, hainbat galderari erantzun nahiean: zer da Euskaltzaindia, zer egin duen orain arte, zer egiten ari da orain eta zer egiteko asmoa du hemendik aurrera. Egileek informazio ugari ematen dute liburuan, bai testuen bidez, baita ilustrazio eta dokumentuen bitartez ere; dokumentu zenbait, gainera, argitaragabeak dira.



### **Joan Mari Torrealdaien sarrera-hitzaldia**

Urriaren 31n, Foruko Frantziskotarren elizan, egin zen Joan Mari Torrealdaien sarrera-ekitaldia. Torrealdaiak *Bibliografiatik bibliotekara. Esperantzari leihoa* izenburuko hitzaldia eman zuen, eta Jose Antonio Arana Martixak eman zion erantzuna, *Alexandriatik digitalizaziora* hitzaldiarekin.

Ekitaldiaren amaieran, euskaltzain berriak Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela agindu zuen, eta ondoren Euskaltzainburuak diploma eta domina eman zizkion Foruko euskaltzainari, eta euskaltzain guztiek zoriondu zuten.



### **Erlea aldizkaria**

Urriaren 8an, Euskaltzaindiaren 90. urteurrenaren ospakizun ekitaldien harira, *Erlea* kultura aldizkari berria aurkeztu zen Donostiako Kursaal. Aldizkaria Euskaltzaindiak argitaratzen du, eta Jose Irazu "Bernardo Atxaga" idazle eta euskaltzain osoa da zuzendaria. Pamiela argitaletxea arduratzen da edizio eta diseinuarekin.

*Erlea* aldizkaria Euskaltzaindiak abian jarri duen egitasmoa da eta Akademiaren eta kultur gintzaren arteko lotura sendotzea du helburu. Literaturarekin lotutako aldizkaria da eta lau hilabetez behin argitaratuko da.

Egun berean, iluntzean, *Paradisua, katuak eta abar* emanaldi artistikoa eskaini zuten Donostiako Kursaal. Jose Irazu "Bernardo Atxaga"k eta Juan Carlos Perezek. Atxagaren testuek eta Juan Carlos Perezen katek osaturiko emanaldia eskaini zuten bi sortzaileek.



### **Leizarragaren Kalendrea (1571)**

Urriaren 8an, Donostiako Kursaal, Joanes Leizarraga Beraskoizkoaren *Kalendrea (1571)* aurkeztu zuen Xabier Kintana euskaltzain osoak. Euskaltzaindiak argitaratu eta Kintanak berak paratu duen liburu honetan Leizarragaren egutegia faksimilean eskaintzen zaigu, bai eta Xabier Kintanak prestatutako testua ere, lau hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.



### **Orotariko Euskal Hiztegia sarean**

*Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* sarean jarri du Euskaltzaindiak, eta Akademiaren webgunean kontsulta daiteke. *Orotariko Euskal Hiztegia* sarean jartzeko, paperezko edizioaren prestaketan erabili ziren datutegiak oinarritzat hartu eta Internet bidezko zabal-kunderako bi bertsio prestatu dira: bata, PDF formatuan, testu jarraitu moduan ordenagailura jaitz daitekeena, eta bestea, web bidez, sarrera nagusiak bilatzeko aukera eskaintzen duena.

## 2009an zehar aurkeztu diren liburuak




**Euskera 2008,1**  
Euskaltzaindiaren Agerkari ofiziala 1919tik aintzina.  
270 orr. ISSN: 0210-1564  
16,75 €

**Euskera 2008,2**  
2008. urtean ikerketari eskainitako zenbakia. Gai berezia: *Testu-antolatzaileak, erabilera estrategikoa.*  
314 orr. ISSN: 0210-1564  
10 €

**Euskera 2008,3**  
Gai berezia: *Euskara, kontsumoa eta hizkuntza*  
560 orr. ISSN: 0210-1564  
16,75 €



**Intelektuala nazioa eraikitzen**  
*R.M.Azkueren pentsaera eta obra*  
Jurgi Kintana  
IKER 22  
EHU - Euskaltzaindia  
664 orr.  
ISBN: 978-84-95438-39-3  
18 €



**El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009)**  
*Una apuesta por la diversidad lingüística*  
Miquel Gros i Lladós  
Jagon 8  
216 orr.  
ISBN: 978-84-95438-57-7  
18 €



**Izen tîpiak euskaraz**  
Patxi Salaberri Zaratiegi  
Onomasticon Vasconiae 26  
310 orr.  
ISBN: 978-84-95438-50-8  
18 €


**Gasteizko toponimia I. Hiria**  
Henrike Knörr Borrás –  
Elena Martínez de Madina Salazar  
Onomasticon Vasconiae 27  
Vitoria/Gasteizko Udala –  
Euskaltzaindia  
565 orr.  
ISBN: 978-84-95438-51-5  
20 €

**Gasteizko toponimia II. Malizaaza**  
Elena Martínez de Madina Salazar –  
Henrike Knörr Borrás  
Onomasticon Vasconiae 28  
Vitoria/Gasteizko Udala –  
Euskaltzaindia  
960 orr.  
ISBN: 978-84-95438-52-2  
20 €



**Idaztiak eta hitzaldiak**  
*Antonio Arrie (1903-1976)*  
Prestatzailea: Antonio Zubala  
Euskaltzainak 5  
272 orr.  
ISBN: 978-84-95438-42-3  
10 €

**Gutun bilduma**  
*Domingo Agirre (1864-1920)*  
Prestatzailea: Sebastian Gartzia Trujillo  
Euskaltzainak 6  
190 orr. ISBN: 978-8495438-41-6  
10 €



**Biziazaren hiztegiak**  
Txomin Peillen  
Euskaltzainak 7  
288 orr.  
ISBN: 978-84-95438-47-8  
12 €

**Estigmatizados por la guerra**  
Gorka Aulestia  
Euskaltzainak 8  
288 orr.  
ISBN: 978-84-95438-48-5  
12 €



**Zuberoako literatura**  
Jean-Louis Davant  
Euskaltzainak 9  
256 orr.  
ISBN: 978-84-95438-49-2  
12 €

**Santiago Ezkerra Beltza**  
*“Lizarnasti”*: Bizitza eta lanak  
Prestatzailea: Andres Iñigo  
Euskaltzainak 11  
254 orr.  
ISBN: 978-84-95438-99-7  
12 €



**Errozkari eta Ansoko toponimiaz**  
Juan Karlos Lopez-Mugartza  
Mendaur V  
Nafarroako Gobernuia –  
Euskaltzaindia  
742 orr.  
ISBN: 978-84-235-3077-9  
20 €

**Baztan-Bidasoko hizkeren azterketa dialektologikoa**  
Edu Zelaiaeta Anta  
Nafarroako Gobernuia –  
Euskaltzaindia  
Mendaur VII  
252 orr.  
ISBN: 978-84-235-3102-8  
15 €



**BBK-EUSKALTZAINDIA LITERATURA SARIAK**  
2008

**Eki-libristaren polka**  
Mikel Zubeldia  
*Txomin Agirre* Eleberri saria  
172 orr. ISBN: 978-84-8056-283-6  
10 €

**Azazkalak jaten**  
Amaia Jauregizar  
*Felipe Arrese Beitia* Olerki saria  
62 orr. ISBN: 978-84-8056-282-9  
5 €

**Josu Dukaiten proposamena**  
Pako Aristi  
*Toribio Altzaga* Antzerki saria  
60 orr. ISBN: 978-84-8056-284-3  
Ahitua

**Narrazioak eta Olerkiak 2008**  
R.M. Azkue Sariak  
Batzuk  
112 orr. ISBN: 978-84-8056-270-6  
3 €

### ESKARIAK EGITEKO:

jartza@euskaltzaindia.net

Plaza Barria, 15. 48.005 BILBO

Tel: +34 944158155 • Faxa: +34 944158144

### Eskatzailearen datuak:

• Izen deiturak - Erakundea: \_\_\_\_\_

• Helbidea: \_\_\_\_\_

Posta Kodea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

• NAN/IFK: \_\_\_\_\_

• Telefonoa: \_\_\_\_\_ e-posta: \_\_\_\_\_

• Data: \_\_\_\_\_ - \_\_\_\_\_ - \_\_\_\_\_

Ordainketak:

• Transferentziaz

• Errezibuz (kontu korrante zenbakia): \_\_\_\_\_

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituzenez gero, eskatzaile horrek esanbidezko baimena ematen du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezzen; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskribatuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira.

Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: info@euskaltzaindia.net. Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.